



HEZKUNTZA SAILAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZARAKO ETA DBHrako ONARPEN PROZEDURA IREKI DU BERRIRO

- **Ikasleak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan onartzeko prozesuari berriro ekingo zaio, data berriak argitaratuta**
- **Egin beharreko izapideak bide telematikoz egingo dira**

Gobernu Kontseiluak gaur eguerdian erabaki du Hezkuntza Sailari lotutako administrazio-prozedura batzuk berriro irekitzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu ondoren bertan behera gelditu baitziren.

Errege Dekretu horrek, besteak beste, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak etetea ezartzen zuen, eta epe horien zenbaketa geroago hasiko zela adierazten zuen.

Hala ere, aurrerago, beste Errege Dekretu batek honako hau adierazten zuen: "Aipaturiko Errege Dekretu horrek edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen duten unean, sektore publikoko erakundeek erabaki ahal izango dute, arrazoituta, interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarritzko funtzionamendurako ezinbestekoak diren administrazio-prozedurekin jarraitzea".

Onarpen eta matrikula prozedura

Arau hori aintzat hartuta, gaur goizean Gobernu Kontseiluak baimena eman du Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuarekin jarraitzeko.

Egin beharreko izapideak bide telematikoz egingo dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 29an